

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Beinat Herce Leceta

Zinegotziak

María Arantzazu Iregui Villar
Jose María Herce Isasmendi
Jose Angel Petralanda Gil
Iñaki Madinabeitia Elorza
Aitor Urrutia Oyanguren
Jose Luis Cantero Morcillo

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamabiko uztailaren hemeretziaren, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkuran, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Martinez andrea eta Akizu eta Merino jaunak.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día diecinueve de julio de 2012, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten la Sra. Martínez y los Srs. Akizu y Merino.

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Jasotakoarekin ados egonik, 2012ko ekainaren 4an egindako osoko bilkurako akta onartu da.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2.1- Hartutako erabakien gaineko informazioa.

2012ko uztailaren 13ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Aho batez erabaki da gai zerrendan honako gai hauek sartzea:

6.- DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA, SA (sozietate xurgatzailea) ETA DEBA GOIENENKO INDUSTRIALDEA SA (sozietate xurgatua) XURGAPEN BIDEZ BATEGITEKO PROIEKTUARI BURUZKO ERABAKIA.

4.- IGOR EZPELETA OREGUI HAUTAGAIK ZINEGOTZI KARGUA HARTZEA.

Alkate jaunak proposatuta, eta kontuan izanik oraindik ez dela jaso Igor Ezpeleta Oregui zinegotzi izendatzeko egiaztageria, gaia hurrengoan erabakitzeko gelditzen da.

5.- ZINEGOTZI KARGUAN DEDIKAZIO PARTZIALEZ ARITZEA (Igor Ezpeleta Oregui).

Kontuan izanik zinegotzi karguan dedikazio partzialez aritzeko proposatzen denak ezin izan duela kargua hartu, gaia hurrengoan aztertzeko gelditu da.

6.- DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA, SA (sozietate xurgatzailea) ETA DEBA GOIENENKO INDUSTRIALDEA SA (sozietate xurgatua) XURGAPEN BIDEZ BATEGITEKO PROIEKTUARI BURUZKO ERABAKIA.

Alkateak hitza hartu du eta ondorengo aurrekarien berri eman du:

- Ekainean egindako hazienda batzordeetako batean eman zen DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA SA eta DEBA GOIENENKO INDUSTRIALDEA SA xurgapen bidez bategiteko proiektuaren berri.
- Xurgapen erabakia hartzeko batzarra deituta, udal honetako idazkariak ohartarazi zuen Alkateak batzarrean eman beharreko botoa udalbatzarraren erabaki batek babestuta egon beharko litzatekeela, eta erabaki hori ez zegoela hartuta. Udal honetako Alkateak horren berri eman zuen batzarrean, baina, ez zitzaion kasurik egin. Udalek ez bazuten ere parte hartu bozketan, bategiteko erabakia hartu zen SPRIren gehiengoarekin.
- Bategitearekin, SPRIk kapital sozialaren % 51 mantentzen du, Aldundiak % 24a, eta gainerakoa eskualde bietako udalen artean banatuta gelditzen da, eta beraz, udal bakoitzaren ordezkariak gutxitu egiten da.

Ondoren adierazi du bere taldea ez dagoela ados proiektuarekin, ez dituela hori egiteko arrazoiak ulertzen; areago, esan du ez dagoela arrazoi logikorik ez ilogikorik. Esan du ez duela ulertzen ere jarraitutako prozedura, hau da, bere ustez logikoena dela xurgapen batean handienak txikiena xurgatzea, eta hemen alderantziz izan dela. Esan duenez, horretarako dagoen arrazoi bakarra

egoitza soziala Elgoibarrera eramatea eta ideologia politiko zehatz bateko ingurukoek agintzen jarraitzea da. Bere ustez eskualde biak oso ezberdinak dira, eta industrialdeak –udalak partaide diren elkarte publikoak- herritik eta herritarrengatik hurbilago egon behar dira. Jakinarazi du arrazoi ekonomikoak alegatzen direla, baina, berak ez dituela ikusten, bategiterik gabe ere gerentea partekatzen zutelako eta bategitearekin ez delako ikusten pertsonal kostua murrizten denik.

Horren guztiorren berri eman ondoren, argitu du gaur hartuko den erabakia ez duela inolako eragin praktikorik izango, lehen esan duen bezala, bategite erabakia joan zen ekainaren 28an egindako batzarrean hartu zelako. Hala ere, esan du garrantzitsua iruditzen zaiola proiektuaren gainean Eskoriatzak duen iritzia jasotzea.

Alkatearen txanda amaituta, Urrutia jaunak gaia iraileko udalbatzarrerara arte atzeratzea eskatu du, iritzi garbirik ez duelako gaur egun.

Bere proposamena onartu da eta aho batez erabaki da gaiari buruzko erabakirik ez hartzea eta iraileko ohiko udalbatzarrean aztertzea.

7.- SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA –ZALDIBAR ANTZOKIA- GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 2. FASEKO PROIEKTUAN AURREIKUSITAKO OBRAK ESLEITZEA.

“SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA -ZALDIBAR ANTZOKIA- GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 2. FASEA” izeneko proiektuan aurreikusitako obrak esleitzeko irekitako espedientea aztertu da.

Kontratazio Mahaiak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

1.- SANTA ANA KOMENTUKO KAPERA -ZALDIBAR ANTZOKIA- GIZARTE ETA KULTUR ERABILERETARAKO BIRGAITU ETA EGOKITZEKO 2. FASERAKO proiektuan aurreikusitako obrak exekutatzeko kontratua esleitzea 409.830,84 eurotan (BEZ gabe). Obrak egiteko epea 23 astekoa izango da, eta administrazio baldintza partikularren agirian ezarritako baldintzen eta kontratistak bere proposamenean ezarritako zehaztapenen arabera egin beharko dira.

2.- Gastua onartzea 0401.622.451.91.01 partidaren kontura.

3.- Esleipendunari eskatzea obrak hasi baino bost egun lehenagoko epean honako dokumentuak aurkezteko:

- Langabezian zeuden eta obra egiteko kontratatutako langileen kontratuak.

4.- Obrak egin ondoren, esleipendunaren fakturarekin batera obrak egiteko berariaz kontratatutako langabezian zeuden langileen nortasuna egiaztatu beharko da, eta baita horien kontratu modalitatea eta indarraldia ere. Horretarako, formalizatutako kontratuak eta TC2-ak aurkeztu beharko dira.

5.- Esleipena egiteko kontratu administratiboa onartzea. Alkateak eskatuta enpresa esleipenduneko ordezkariak sinatu beharko du kontratua.

6.- Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako kontratua Udalaren izenean eta ordezkarietan sinatzeko.

7.- Erabakia enpresa esleipendunari eta gainerako lehiatzaileei jakinaraztea.

8.- Behin betiko esleipen hau Udaletxeko webgunean argitaratzea (kontratatzailearen profila).

9.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Berorren aurka, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsioa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsioaren aurretik, hilabeteko epean erabaki hau jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean Donostiako auzi-administrazioetarako epaitegian inpugnatu daiteke, jakinarazten den biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, guzti hori bidezkoztat jo daitezkeen beste batzuez gain.

8.- ELORRETA 26 HIEKO LURZATI PRIBATUEN GAINEAN ERATUTAKO ERABILERA PUBLIKOKO ZORTASUNA ONARTZEA.

Maidar Eguino Sagastak, "Elorreta S. Coop." etxebizitza kooperatibaren izenean eta ordezkari-tzan, "Elorreta" 26 HIEko konpentsazio proiektuko A.20.8, A.20.9 eta A.20.10 lurzatiaren gainean erabilera publikoko zortasuna eratzea onartu dadin egindako eskaera ikusi da.

Kontuan izanik lurzati horien ekialdeko mugan lurzati pribatu bat dagoela eraikuntza lerroaren eta lurzati pribatuaren mugaren artean, eta lurzati hori erabilera publikorako izango dela, egun tramitatzen ari den urbanizazio proiektuan aurreikusitakoaren arabera zati bat espaloia egiteko eta beste zati bat bidea egiteko erabiliko delako; Udalbatzarrak, bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, honako hau ERABAKI du:

Lehenengoa.- "Elorreta" 26 HIEko konpentsazio proiektuko A.20.8, A.20.9 eta A.20.10 lurzatiaren gaineko erabilera publikoko zortasuna eratzea onartzea. Zortasuna lurzati bakoitzaren ekialdeko mugan eratuko litzateke, eraikuntza lerroaren eta lurzati pribatuaren mugaren artean, eta ondorengo azalaren gainean: A.20.8 lurzatiaren 101 m², A.20.9 lurzatiaren 94 m² eta A.20.10 lurzatiaren 131 m².

Bigarrena.- Beñat Herce Leceta Alkate jaunari ahalmena ematea behar beste dokumentu publiko eta pribatu formalizatzeko Eskoriatzako Udalaren izenean eta ordezkari-tzan erabaki honetan aipatutako erabilera publikoko zortasuna erregistroan inskribatzeko.

9.- OSOKO BILKURETAKO AKTAK: PARTE HARTZEAK NOLA JASO ERABAKITZEA.

Alkateak Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak egindako proposamenaren berri eman du.

Eztabaida txiki bat egon da, eta Urrutia jaunari azaldu zaio proposamenak dioela aktak AJAn ezarritakoaren arabera jasoko direla, aurreko agintaldian egiten zen bezala.

Urrutia jaunak adierazi du alde bozkatuko duela legeak horrela badio.

Pertsonal eta Gobernu batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Toki Erakundearen Antolamendua, Funtzionamendua eta Araubide Juridikoaren Araudia onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuko 109.1g) artikuluan ezarritakoaren arabera, udalbatzarreko aktetan, erabakiez gain, "horiek hartzeko eztabaidan edo izandako gorabeheretan parte hartu duten taldeen edo zinegotzien iritzia labur" jaso ditzala idazkariak. Ondorioz, eraginik gabe uztea berriaz horrela eskatzen duten taldeen edo zinegotzien parte hartzeak hitzez hitz jasotzeko zehazten duen erabakia.

Bigarrena.- Kontuan izanik udalbatzarraren bilkura guztiak bideoan grabatzen direla, grabazio horiek edukia hitzez hitz jasotzeko eta bilkuran izandako parte hartze guztiak eta bakoitza osorik jasotzeko baliatzea.

10.- 2011KO KONTU OROKORRAK ONARTZEA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 63. artikulua betez, Kontu Batzorde Bereziak 2011ko ekitaldiko kontuak eta kontabilitate-egoera aztertu zituen, hau da, honako hauek: Udalaren, Telesko Udal Telebista fundazioaren eta Eskoriatzako Industrialdea elkarte publikoaren urteko kontuak eta kontabilitate-egoera; eta horrekin batera, horiek justifikatzeko dagozkion dokumentuak eta 2012ko martxoaren 23an Alkate erabakiz onartutako Udalaren eta Telesko fundazioaren aurrekontuen kitapenak.

2012ko ekainaren 5ean egindako bilkuran Kontu Batzorde Bereziak aipatutako kontuak onartzearen aldeko diktamena eman zuen.

2012ko ekainaren 11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratutako iragarki bidez jendaurrean jarri ziren 15 egunez, eta epe horretan ez da inolako alegaziorik edo erreklamaziorik egon.

Aurrez esandako guztia oinarritzat hartuta, Kontu Batzorde Bereziak 2012ko uztaillaren 3an emandako aldeko diktamenarekin, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

“2011ko ekitaldiko Udaleko kontu orokorren gaineko espedientea behin betiko onartzea, 2012ko ekainaren 5ean egindako Kontu Batzorde Bereziaren hasiera batean onartu ondoren, eta 2012ko ekainaren 11ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zenetik ezarritako epea igaro baita hasiera batean onartutako espedientearen aurka inolako ohar edo erreklamaziorik egin gabe”.

11.- HAUR ESKOLAKO (0-3 URTE, LEHEN HEZKUNTZAKO LEHENENGO ZIKLOA) UDAL ZERBITZUAREN KUDEAKETA ESLEITZEA.

Haur Eskolako (0-3 urte, lehen hezkuntzako lehenengo zikloa) udal zerbitzuaren kudeaketa prozedura irekiaz kontratatzeke espedientearen honako gertaera hauek jasotzen dira:

- Kontratazio honetako espedientea Udalbatzarraren erabakiz onartu zen 2012ko ekainaren 21ean egindako osoko bilkuran.
- Kontratazio Mahaiak kontratua ARIZMENDI S.COOP enpresari 13.860,67 eurotan (BEZ gabe) esleitzea proposatu zuen. Zerbitzua arautzen duen erregelamenduaren, baldintza-agiri administratiBoen eta teknikoan, eta esleipendunak bere eskaintzan proposatutako hobekuntzen arabera bete beharko da kontratua.
- Proposamena ezagututa, kontratazioa arautzen duen baldintza-agirian eskatutako dokumentazioa aurkeztea eta 693,03€ euroko behin betiko bermea jartzea eskatu zitzaion enpresari.
- Eskatutakoari erantzunez, enpresak zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzakoak egunean dituela egiaztatzeke agiriak aurkeztu ditu eta behin betiko bermea jarri du.

Aurrez esandakoan oinarrituz, eta bertaratutako zinegotzi guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako erabaki hauek hartu ditu:

1.- Haur Eskolako (0-3 urte, lehen hezkuntzako lehenengo zikloa) udal zerbitzua kudeatzeko kontratua ARIZMENDI S.COOP. enpresari esleitzea. Esleipenaren urteko prezioa 13.860,67 € (BEZ gabe) da, eta zerbitzua arautzen duen erregelamenduaren, baldintza-agiri administratiBoen eta teknikoan, eta esleipendunak bere eskaintzan proposatutako hobekuntzen arabera egin beharko da kudeaketa.

2.- Gastua onartzea 0405.227.421.00.17 partidaren kontura.

3.- Esleipena egiteke kontratu administratiBoa onartzea. Alkateak eskatuta enpresa esleipenduneko ordezkariak sinatu beharko du kontratua.

4.- Alkate jaunari ahalmena ematea aipatutako kontratua Udalaren izenean eta ordezkarietan sinatzeko.

5.- Erabakia enpresa esleipendunari jakinaraztea.

6.- Behin betiko esleipen hau Udaletxeko webgunean argitaratzea (kontratatuzailearen profila).

7.- Erabaki honek administrazio bidea agortzen du. Berorren aurka, nahi izanez gero, berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurretik, hilabeteko epean erabaki hau jakinarazten den hurrengo egunetik kontatzen hasita, edo bestela, zuzenean Donostiako auzi-administrazioetarako epaitegian inpugnatu daiteke, jakinarazten den biharamunetik hasita bi hilabeteko epean, guzti hori bidezkoztat jo daitezkeen beste batzuek gain.

12.- GALDE-ESKEAK.

Urrutia jaunak HIRI HONDAKINEN KUDEAKETARI buruz BILDUK aurkeztutako mozioa dela-eta Udalbatzarrak hartutako erabakiaren gainean idazkariari eskatu zion txostenaz galdetu du.

Galdera hori dela-eta, gaia pertsonal batzordean aztertu behar zela jakin zuenean eta bera ezin zela batzordera joan, gaia hurrengo batean aztertzeko lagatzea eskatu zuela; baina, hala ere, gaia batzorde horretan aztertu zela adierazi du. Gehitu du, bere harridurarako joan zen egunean Udalaren antolaketa erregelamenduari egindako aldaketan onarpenari bere taldeak jarritako alegazioei buruzko udalbatzarraren erabakia jakinarazi zitzaioela, eta gutun-azala ikusi zuenean, eskatutako txostena izango zela pentsatu zuela. Horregatik, jarraitu du, txostenak zer dioten jakin gura du. Uste du nahikoa denbora pasa dela gaia batzordean aztertu zenetik, eta, hala ere, ez zaiola ezer jakinarazi esan du.

Alkateak erantzun dio gaia aztertu zela idazkariak horrela proposatu zuelako, ez zela ezer eztabaidatu eta bozkatu behar batzordean, idazkariari eskatutako txostenaren berri eman behar zela eta baita eskaera horren aurrean egindako txostenarena ere, bera batzordean egoteak edo ez egoteak ez zuela eraginik inolako erabakitan.

Idazkariak, galde-eskeen txanda berari galderak egiteko ez dela leku egokia ohartarazi ondoren, jakinarazi du txostena gazteleraz egin zuela eta itzulpen zerbitzuak ezin izan duela orain arte itzuli, eta horregatik ezin izan zaiola oraindik jakinarazi. Esan du jakinarazpena mahai gainean duela prest bihar irteera emateko erregistroan eta berari emateko.

Urrutia jaunak erantzun du galdera ez zela berarentzat, eta berriz ere esan du, argitu nahi zuela zergatik ez zaien helarazi batzordean aztertu zen gai bat.

Urrutia jaunak galdetu du zer gertatzen den Teleskorekin. Esan du Udalbatzarrean behin baino gehiagotan egin duen galdera dela, eta bere garaian erantzun zitzaioela unibertsitateko ikasle bat txosten, dokumentu edo azterlan bat egiten ari dela. Dokumentu hori jasotzea eskatu du eta galdetu du zenbat ordaindu den horregatik. Esan du web orrialdetik jakin izan duela zerbitzuari buruzko inkesta bat egin dela, eta zenbait herritarri bere iritzia eskatu behar zitzaioela telefonoz. Horregatik, esan du, jakin gura du nori deitu zaion, dirudienez batzuei iritzia emateko aukera ematen baitzaie eta beste batzuei ez. Fundazioaren juntari dagokionez, adierazi du azken bost urteetan ez dela behin ere bildu, eta agintaldia aldatuta, junta berria ere ez dela eratu. Jarraitutako prozedura zalantzan jarri du, hau da, parte hartze prozesua deitzea juntaren organo nagusia alde batera utzita. Junta hori deitzea eskatu du, horrela, junta eratu dadin eta hemen egindako galderak juntan bertan egin ahal izateko.

Alkateak erantzun dio Parte-hartze batzordean erabaki zela parte hartze prozesu bat egitea bekadun baten laguntzarekin. Lehenengo hemengo unibertsitateko jo zela, baina, baiezko erantzunik ez zenez jaso, Oñatikora jo zela, eta bertatik datorrela Teleskorekin buruzko proiektua egiten ari den bekaduna. Jakinarazi du proiektua oraindik ez dagoela amaituta, irailaren 4ra arteko epea duela aurkezteko, eta aurkeztutakoan emaitzak herriari jakinarazteko asmoa dagoela. Datuak bildu dira, baina, ondorioak landu egin behar dira eta proposamen bat egin. Parte-hartze

prozesuari dagokionez, deitutako pertsonak bekadunak berak aukeratu zituela, berak proposatutako irizpideei jarraituz, eta gainera, nahi duenak izan duela inkesta idatziz erantzuteko aukera. Parte-hartzeko aukerak asko izan dira, inkesta kiroldegian, liburutegian, museoan eta udaletxean betetzeko aukera izan baita. Ordaindu zaionari buruz, erantzun du Udalak berak eskatuta lanean aritu diren beste bekadunei beste ordaindu zaiola. Juntari dagokionez, juntarako deia egitea juntako presidenteak hartu beharreko erabakia dela.

Urrutia jaunak behin eta berriz ezbaian jarri du Teleskoko junta eratu ez izana eta junta alde batera utzita parte-hartze prozesuak antolatzea.

Urrutia jaunak galdetu du zenbat aldiz bildu den Kultura batzordea azken hiruhilean. Batzordeburuak, Petralanda jaunak, erantzun dio hileru bi aldiz bildu dela. Horren aurrean Urrutia jaunak jakinarazi du, gutxienez, azken hiru hilabetetan ez duela ez deialdirik ez aktarik jaso eta deialdiak eta aktak bidaltzeko eskatu du.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 19:35ean. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada el día 4 de junio de 2012.

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA

2.1.- Información sobre acuerdos adoptados.

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 13 de julio de 2012 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

3.- RATIFICACIÓN SOBRE INCLUSIÓN DE ASUNTOS EN EL ORDEN DEL DÍA.

Por unanimidad se acuerda ratificar la inclusión de los siguientes asuntos dentro del orden del día:

6.- ACUERDO SOBRE EL PROYECTO DE FUSION POR ABSORCION ENTRE DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA, SA (Sociedad absorbente) Y DEBA GOIENNEKO INDUSTRIALDEA SA (Sociedad absorbida)

4.- TOMA DE POSESIÓN DEL CARGO DE CONCEJAL POR EL CANDIDATO IGOR EZPELETA OREGUI

A propuesta del Sr. Alcalde y atendiendo que todavía no se ha recibido la credencial del candidato a concejal D. Igor Ezpeleta Oregui, el asunto queda sobre la mesa.

5.- EJERCICIO DEL CARGO DE CONCEJAL CON DEDICACIÓN PARCIAL (Igor Ezpeleta Oregui).

Resultando que quien se pretende ejerza el cargo de concejal con dedicación parcial no ha podido tomar posesión del cargo, el asunto queda sobre la mesa.

6.- ACUERDO SOBRE EL PROYECTO DE FUSION POR ABSORCION ENTRE DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA, SA (Sociedad absorbente) Y DEBA GOIENNEKO INDUSTRIALDEA SA (Sociedad absorbida)

El Alcalde toma la palabra y da cuenta de los siguientes antecedentes:

- En una comisión de Hacienda de junio ya se informó sobre el proyecto de fusión que por absorción se pretendía entre DEBA BEHEKO INDUSTRIALDEA SA Y DEBA GOIENNEKO INDUSTRIALDEA SA.
- Convocada la Junta para proceder a adoptar el acuerdo de absorción, la secretaria de este ayuntamiento advirtió que la votación del Alcalde en dicha junta debiera de estar respaldada por un acuerdo del pleno, y que dicho acuerdo no había sido adoptado. El Alcalde de este ayuntamiento advirtió en la junta sobre dicha circunstancia, pero se hizo caso omiso. Si bien los ayuntamientos no participaron en la votación, con la mayoría del SPRI el acuerdo de fusión de adoptó.
- Con la fusión el SPRI mantiene el 51% del capital social, la Diputación el 24% y el resto se reparte entre los municipios de ambas comarcas, con lo que la representatividad de cada uno de ellos queda minorada.

A continuación manifiesta que su grupo no está de acuerdo con el proyecto porque no entiende las razones del mismo; es más, dice, no hay razones ni lógicas ni ilógicas. Dice que tampoco entiende el procedimiento que se a ha seguido, esto es, a su entender lo lógico es que en una

absorción el más grande absorba al más pequeño y aquí ha sido al revés. La única explicación de ello, añade, es que se pretenda llevar la sede social a Elgoibar y que sigan dominando los afines a una determinada ideología política. A su entender ambas comarcas son muy distintas, y las industrialdeas, sociedades públicas en la que participan los ayuntamientos, han de ser más cercanas a los pueblos. Informa que se alegan razones de tipo económico pero él tampoco las ve porque sin la fusión también compartirían el gerente y con la fusión no se ve que se reduzca el costo en personal.

Tras informar sobre cuanto antecede aclara que el acuerdo que hoy se adopte no tendrá ningún efecto práctico porque, como ya ha dicho antes, el acuerdo de fusión está adoptado en la junta que se celebró el pasado 28 de junio. No obstante, dice, le parece importante que haya una constancia de la opinión que tiene Eskoriatza sobre el proyecto.

Terminada su intervención el Sr. Urruita solicita se aplaze el asunto hasta el pleno de setiembre porque a la fecha, dice, no tiene formado un criterio.

Se acepta su propuesta y por unanimidad se acuerda dejar el asunto sobre la mesa para ser tratado en el pleno ordinario de setiembre.

7.- ADJUDICACIÓN DE LAS OBRAS CONTEMPLADAS EN EL PROYECTO DE MEJORA Y ACONDICIONAMIENTO DE LA CAPILLA DEL CONVENTO DE SANTA ANA-ZALDIBAR ANTZOKIA- EN ESKORIATZA PARA USOS CULTURALES Y SOCIALES (2ª FASE)

Examinado el expediente incoado para adjudicar la realización de las obras contempladas en el Proyecto de **“MEJORA Y ACONDICIONAMIENTO DE LA CAPILLA DEL CONVENTO DE SANTA ANA- ZALDIBAR ANTZOKIA- EN ESKORIATZA PARA USOS CULTURALES Y SOCIALES (2ª FASE)”**

De conformidad con la propuesta elevada desde la Mesa de Contratación y el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el pleno ACUERDA:

1º.- Adjudicar el contrato de ejecución de las obras contempladas en el Proyecto **MEJORA Y ACONDICIONAMIENTO DE LA CAPILLA DEL CONVENTO DE SANTA ANA-ZALDIBAR ANTZOKIA- EN ESKORIATZA PARA USOS CULTURALES Y SOCIALES (2ª FASE)”** por un precio de 409.830,84 € (IVA, no incluido), en un plazo de ejecución de 23 semanas y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista.

2º.- Aprobar el gasto con cargo a la partida 0401.622.451.91.01

3º.- Que requiera al adjudicatario para que dentro de los cinco días anteriores al de la fecha en que comiencen las obras, presente la siguiente documentación:

- Contrato del personal en paro ocupado en la obra.

4º.- Ejecutadas las obras, junto con la certificación final de las obras, el adjudicatario deberá de acreditar la identidad de los trabajadores en paro que fueron contratados expresamente para la ejecución de las obras, la modalidad y el periodo de vigencia del contrato. Para ello, deberá de presentar los contratos formalizados y los TC2.

5º.- Aprobar el contrato administrativo para la formalización de la citada adjudicación, que habrá de ser suscrito por el representante de la empresa adjudicataria a requerimiento del Alcalde.

6º.- Facultar al Sr. Alcalde para que, en nombre y representación del Ayuntamiento, proceda a la firma del correspondiente contrato.

7º.-Notificar el presente acuerdo a la empresa adjudicataria y al resto de licitadores.

8º.- Dar publicidad a la presente adjudicación definitiva en la página web del Ayuntamiento (perfil de contratante).

9º.- El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

8.- ACEPTACIÓN DE LA SERVIDUMBRE DE USO PUBLICO CONSTITUIDA SOBRE PARCELAS PRIVADAS DE LA AIU 26 ELORRETA

Vista la solicitud cursada por Dña. Mainer Eguino Sagasta, que actúa en nombre y representación de la Cooperativa de Viviendas "Elorreta S. Coop.", y consistente en que se acepte la constitución de una servidumbre de uso público sobre las parcelas A.20.8, a.20.9 y A.20.10 del Proyecto de Compensación de la AIU 26 "Elorreta".

Considerando que en el linde Este de dichas parcelas hay una superficie de terreno privado, situado entre la línea de edificación y el límite de la parcela privada, que tiene vocación de uso público por cuanto que, según la previsiones del Proyecto de Urbanización que se está tramitando a la fecha, parte será destinado a acera y parte a vial, el Pleno, con el voto favorable de todos los corporativos presentes, ACUERDA:

Primero: Aceptar la constitución de una servidumbre de Uso Público sobre las parcelas A.20.8, a. 20.9 y A.20.10 del Proyecto de Compensación de la AIU 26 "Elorreta". Dicha servidumbre quedaría constituida en el linde este de cada una de las parcelas, entre la línea de edificación y el límite de la parcela privada, y sobre la siguientes superficies: sobre 101 m2 de la parcela A.20.8, sobre 94 m2 de la parcela A.20.9 y sobre 131 m2 de la parcela A.20.10.

Segundo: Facultar al Alcalde, D. Beñat Herce Leceta, para que en nombre y representación del Ayuntamiento de Eskoriatza formalice cuantos documentos públicos y privados se precisen hasta la inscripción registral de la servidumbre de uso público referida a lo largo del presente acuerdo.

9.- ACTAS DE LOS PLENOS: ACUERDO SOBRE FORMA DE REFLEJAR LAS INTERVENCIONES.

El Alcalde da cuenta de la propuesta que se eleva desde la comisión informativa de Personal y Gobernación.

Hay un breve debate en el que se aclara al Sr. Urrutia que la propuesta conlleva a elevar las actas conforme establece el ROF y como se hacía en un principio en la anterior legislatura.

El Sr. Urrutia manifiesta que vota que sí si así lo dice la ley.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Personal y Gobernación, y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

Primero: De conformidad con lo establecido en el artículo 109.1g) del Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, aprobado por el Real Decreto 2568/1986, de 28 de noviembre, la secretaria recoja en las actas del pleno, además de los acuerdos propiamente dichos, "las opiniones sintetizadas de los Grupos o Miembros de la

Corporación que hubiesen intervenido en las deliberaciones e incidencias de éstas". En consecuencia, dejar sin efecto el acuerdo por el que se determina que se recogerán literalmente las intervenciones de los Grupos o Concejales que así lo soliciten de forma expresa.

Segundo: Resultando que todas las sesiones del pleno son grabadas en vídeo, acordar que dichas grabaciones servirán de soporte para recoger el contenido literal y reflejar íntegramente todas y cada una de las intervenciones habidas en la sesión.

10.- APROBACIÓN DE LAS CUENTAS GENERALES DE 2011.

En cumplimiento del artículo 63 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, reguladora de las Haciendas Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, la Comisión Especial de Cuentas procedió al examen de las Cuentas y Estados contables del ejercicio 2011, integrada por las cuentas anuales y estados contables de la propia Corporación y de la Fundación Telesko Udal Telebista, junto con los documentos correspondientes que las justifican, así como las liquidaciones del Presupuesto del Ayuntamiento y de la Fundación Telesko, aprobadas por Resoluciones de 23 de marzo de 2012.

En sesión de fecha 5 de junio de 2012 la Comisión Especial de Cuentas dictaminó favorablemente la aprobación de las citadas cuentas.

Mediante anuncio publicado en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 11 de junio de 2012, fueron sometidas a información pública por término de quince días, sin que durante dicho plazo se interpusiese alegación a reclamación alguna.

Con base a cuanto antecede, de conformidad con el dictamen favorable emitido con fecha 3 de julio de 2011 por la Comisión Especial de Cuentas y con el voto favorable todos los corporativos asistentes, el Pleno ACUERDA:

“Aprobar definitivamente el expediente relativo a las cuentas generales del Ayuntamiento correspondientes al ejercicio 2011, tras su aprobación inicial en la Comisión Especial de Cuentas celebrada en fecha 5 de junio de 2012 y tras haber transcurrido el plazo establecido de información pública desde su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa de fecha 11 de junio de 2012, sin que se haya producido reclamación ni observación alguna contra el expediente inicialmente aprobado.”

11.-ADJUDICACION DE LA GESTION DEL SERVICIO MUNICIPAL DE ESCUELA INFANTIL (0-3 AÑOS, PRIMER CICLO DE EDUCACIÓN INFANTIL)

En relación con el expediente relativo a la contratación mediante procedimiento abierto de la gestión del servicio municipal de Escuela Infantil (0-3 años, primer ciclo de educación infantil), y resultado :

- Que el expediente de esta contratación fue aprobado mediante acuerdo del Ayuntamiento en Pleno adoptado en sesión de fecha 21 de junio de 2012.
- Que la Mesa de Contratación propuso se adjudique el contrato a la empresa ARIZMENDI S.COOP, al precio de 13.860,67 € (IVA no incluido) y con arreglo al Reglamento que rige el Servicio, a los Pliegos de Cláusulas Administrativas y de Condiciones Técnicas y mejoras introducidas por el adjudicatario en su oferta.
- Que, conocida dicha propuesta, se requirió a la empresa la presentación de la documentación correspondiente según los pliegos que rigen la contratación, así como la constitución de la garantía definitiva por importe de 693,03€ euros.

- Que, en respuesta al anterior requerimiento, la empresa ha presentado la documentación acreditativa de estar al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones fiscales y de Seguridad Social y ha depositado la garantía definitiva.

Con base a cuanto antecede y con el voto favorable de todos los corporativos asistentes, el Pleno de la Corporación adopta los siguientes acuerdos:

1º.- Adjudicar el contrato de ejecución de gestión del servicio de Escuela Municipal Infantil de 0-3 años (primer ciclo de educación infantil) a la empresa ARIZMENDI S.COOP . al precio anual de 13.860,67€ (IVA no incluido) , y con arreglo al Reglamento que rige el Servicio, a los Pliegos de Cláusulas Administrativas y de Condiciones Técnicas y mejoras introducidas por el adjudicatario en su oferta.

2º.- Aprobar el gasto con cargo a la partida 0405.227.421.00.17.

3º.- Aprobar el contrato administrativo para la formalización de la citada adjudicación, que habrá de ser suscrito por el representante de la empresa adjudicataria a requerimiento del Alcalde.

4º.- Facultar al Sr. Alcalde para que, en nombre y representación del Ayuntamiento, proceda a la firma del correspondiente contrato.

5º.-Notificar el presente acuerdo a la empresa adjudicataria.

6º.- Dar publicidad a la presente adjudicación definitiva en la página web del Ayuntamiento (perfil de contratante).

7º.- El presente acuerdo pone fin a la vía administrativa. Contra el mismo podrá interponerse potestativamente recurso de reposición, previo al contencioso-administrativo, en el plazo de un mes contado desde el día siguiente a la fecha de su notificación, o bien impugnarse directamente ante el Juzgado de lo contencioso-administrativo de Donostia-San Sebastián, en el plazo de dos meses, contados desde el día siguiente a la fecha de su notificación, todo ello con independencia de cualquier otro que se estime oportuno.

12.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

El Sr. Urrutia pregunta sobre el informe que solicitó a la secretaria en relación al acuerdo adoptado por el Pleno con motivo de la moción presentada por BILDU sobre GESTION DE RESIDUOS URBANOS.

Con motivo de dicha pregunta manifiesta que cuando supo que dicha solicitud se iba a tratar en una comisión de personal a la que él no podía asistir pidió que se dejase el asunto sobre la mesa; y que sin embargo se trató. Añade que, para su sorpresa, le otro día se le notificó el acuerdo del pleno relativo a las alegaciones interpuesta por su grupo ante la aprobación de la modificación del ROM y que cuando vio el sobre él esperaba que se trataba del informe solicitado. Por ello, dice, quiere saber que dice el informe. Considera que ha pasado tiempo suficiente desde que el asunto se trató en la comisión y que sin embargo no se le ha notificado.

El Alcalde le contesta que se trató porque la propia secretaria así lo propuso, no se sometía nada a debate y votación de la comisión, de lo que se trataba era de dar cuenta de una solicitud de informe dirigido a la secretaria y de dar cuenta también del informe emitido ante dicha solicitud, su ausencia o presencia no incidía en acuerdo alguno.

La secretaria, tras advertir que el punto de ruegos y preguntas no es el foro adecuado para dirigirle preguntas, informa que no se la ha notificado todavía porque el informe lo emitió en castellano y el servicio de traducción no ha podido traducir el mismo hasta el día de hoy. Añade

que tiene la notificación preparada sobre su mesa para mañana dar salida en el registro y hacerle entrega de la misma.

El Sr. Urrutia responde que la pregunta no iba dirigida a ella e insiste en que lo que pretendía era aclarar el porqué no se le ha hecho llegar un asunto que se trató en la comisión.

El Sr. Urrutia pregunta qué pasa con Telesko. Afirma que es una pregunta que ha cursado más de una vez ante este pleno y que en su día se le respondió que un alumno de la universidad está haciendo un informe, documento o un estudio. Solicita se le de traslado de ese documento y pregunta cuánto se ha pagado por ello. Dice que por la página web se ha enterado de que se ha hecho una encuesta en relación al servicio y que a algunos vecinos se les iba a preguntar sobre su opinión a través del teléfono. Por ello, dice, quiere saber a quién se ha llamado porque parece que a algunos se les da opción a que opinen y a otros no. En relación a la Junta de la fundación, señala que en los últimos cinco años no se ha juntado ninguna vez, que tras el cambio de legislatura ni tan siquiera se ha constituido la nueva junta. Pone en duda el procedimiento que se ha seguido, esto es, el convocar un proceso participativo al margen del máximo órgano rector de la junta. Solicita que se convoque dicha junta para que pueda constituirse y ser en su seno donde se cursen estas preguntas.

El Alcalde le responde que la iniciativa de hacer un proceso participativo con la colaboración de un becario se acordó en el comisión de Participación; que primero se recurrió a la universidad de aquí y ante la falta de respuesta recibida se recurrió a la de Oñati, de donde proviene el becario que está haciendo el proyecto sobre Telesko. Hace saber que el proyecto todavía no ha terminado, que tiene plazo de hasta el próximo 4 de setiembre para presentarlo y que cuando lo haga es intención el dar a conocer los resultados al pueblo. Los datos están recogidos, pero hay que elaborar las conclusiones y hacer una propuesta. En cuanto al proceso participativo, la selección de personas a las que se les ha llamado la hizo el propio becario, siguiendo criterios propuestos por él mismos, y además, dice, el resto que ha querido ha tenido opción de responder por escrito. Los medios para participar, dice, han sido amplios, se podía responder en el polideportivo, la biblioteca, el museo y el ayuntamiento. En cuanto a cuánto se le ha pagado, responde que lo mismo que a otros becarios que han estado previa petición del ayuntamiento. En cuanto a lo de la Junta, dice, es una decisión a tomar por el propio presidente.

El Sr. Urrutia pone una y otra vez en cuestión el hecho de que la Junta de Telesko no se haya constituido y que se organicen procesos participativos al margen de la misma.

El Sr. Urrutia pregunta cuántas veces se ha reunido la comisión de Cultura durante el último trimestre. El presidente de la comisión, Sr. Petralanda, responde que dos veces al mes. Ante ello el Sr. Urrutia informa que en los últimos tres meses, por lo menos, no ha recibido ni convocatorias ni actas, y solicita que se le remitan.

Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 19:35 horas. De todo lo cual como Secretaria doy fe.